...eta kitto!
809 zkia. 2012-VI-8
ASTEKARIA



# EUSKARAK HITZA HARTU ZUEN “Olinpiadatxoetan”



DOKTOREAK:
Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

**Kasu konplexuetako eta hezur eta hortzoi gabeko inplantologian ADITUAK**

PUNTA-PUNTAKO inplantologia, **OSTEOINKORPORAZIO** teknika BERRIA erabiliz



# Inplantologia

*Prezio bereziak!!!*

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h
Ostiraletan: 10-14 / 15-19h











RPS 04/02

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
FAXA:
943 20 28 72
Astekariaren E-MAILak:
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
Elkartearen E-MAILak:
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Itziar Albizu
Maider Aranberri
Ekhi Belar
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA:
Koldo Mitxelena
ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi
ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe, E. Belar
eta S. Hernandez
HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu
Belen Ulazia
Tfnoa: 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA:
J.A. Mogel Ikastola (Osane)
BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz
TIRADA:
*8.000 ale*
INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A:
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**IRAZI/IRAGAZI.-** Likido bat iragazkitik pasatu. Gaztelerazko ***'colar'***. *"Esnia kafetxanuan irazi".*
**IRAZTONTZI.-** Gaztelerazko ***'colador'***. *"Iraztontzixa galdu dabenetik, natia daukala-eta, ez dau esnerik eraten".*
**IRITXI/ERITXI.-** Iruditu, begitandu. *"Ez da nahikua norberak ondo eriztia, bestieri be entzun egin bihar jakue".* NOR-NORI-NORK du berezko erregimena, baina NOR-NORI ere asko erabiltzen da. *"Txarto irzten detsazu esan dotenari?" "Txarto irizten jatzu esan dotena?".*

# ESKUTITZAK

### AIRE GARBIAK BIRA GAITZALA!

Daramagun bizimodua "erosi, erabili eta bota" ereduan oinarritzen da, eta ondorioz, eibartar bakoitzak 450kg zabor sortzen ditugu urtero. Gaur egungo zabor bilketa sistemarekin, hondakinen %27 soilik birziklatzen dugu Eibarren, eta beste guztia nahastuta jaso eta zabortegira botatzen dugu. Zabor horrek zabortegietan hainbat arazo sortzen ditu: usain txarrak, gas kutsakorrak, ur zikinak, … Europan hartu diren azken erabakien arabera, zabortegiak itxi egin behar dira 2015 urtea baino lehen. Beraz, zer egin zabor guzti horrekin? Bi aukera izango genituzke:

Batzuk erraustea planteatzen dute. Erraustegiak oso kutsakorrak dira, osasunean eta ingurumenean hainbat kalte sortzen dituzte eta ez dituzte zaborrak desagerrarazten, gas toxiko eta errauts kutsakor bihurtzen baizik. Oso garestiak dira gainera, eta zaborren faktura baldintzatuko liguke hurrengo 30 urteetarako.

Guk mundu mailan zabaltzen ari den Zero Zabor politika martxan jartzea planteatzen dugu. Hasteko, ahalik eta zabor gutxien sortu behar dugu; zaborrik onena sortzen ez dena baita. Ondoren, materialak berrerabili beharko genituzke, hau da, erosketetako poltsa gogorren ideia beste esparruetan ere zabaltzea (produktuak "a granel" erosi ontziak berrerabiliz, erropak konponduz bota aurretik, …). Eta azkenik, birziklapen-tasak igotzea lortu behar dugu. 5. edukiontziaren sistemarekin birziklapen-tasa %27tik %35ra soilik igotzea lortzen da. Gure ustez, helburu nagusia birziklapen-tasak, Gipuzkoako beste herri batzuetan moduan, %80-85era igotzea izan beharko luke, bilketa-sistemari erreparatu gabe. Beraz, 3 printzipio hauekin (murriztu, berrerabili, birziklatu) ez dugu erraustegirik behar, ezta zabortegi toxikorik ere.

Horregatik, filosofia honekin bat datorren eibartar orori deia egiten diogu, ekainaren 17an "Aire garbiak bira nazan. Zero errausketa" lelopean Donostian egingo dugun mosaiko erraldoira joateko. Eibartik autobusa jarriko dugu (9:30etan Egogainen). Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko idatzi email bat zerozaboreibar@gmail.com helbidera. Animatu eta parte hartu!

**EIBAR ZERO ZABOR**

### OKERRA ZUZENTZEN

Josu Ibargutxiri azken alean egindako elkarrizketan, transkripzioa egiterakoan akatsa egin genuen: Argentinan diktadurako partaideak babesteko egin zuten legediei buruz hitz egiterakoan, "Ley de Punto Final" eta "Ley de Obediencia de Vida" aipatzen da. Batzuk konturatuko zinatenez, azken izen hori txarto zegoen: "Ley de Obediencia Debida" da, militarrak batez ere izaten duten "obligazioari" deitzen diona. Esanahia ere, nola ez, zeharo ezberdina da! Barkatu eragozpena.

**ERREDAKZIOA**

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

*"Diru inflazioa baino larriagoa iruditzen zait hitzen inflazioa; oso larria da. Horregatik neure burua akusatzen dut, batzuetan ezer gutxi esanda berba gehiegi egiten dudalako, eta hori oso gaixotasun larria da, bai munduarentzat bai lengoaiarentzat"*

(Eduardo Galeano, idazlea)

*"Hizkuntzen ekologia erabili behar da euskararen aurkako jarrera indargabetzeko. Euskalgintzak orain arte erabilitako diskurtsoa gehienbat abertzaletasunean dago oinarrituta eta horrek mugak ditu abertzale ez direnak gurera erakartzeko eta hizkuntzen balioa ikusteko"*

(Iñaki Martínez de Luna, soziologoa)

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

## autuan

**HITZALDIXA**
Ekonomia, Garapena, Enplegua eta Barrikuntza batzordiak, jarduera zientifikuak eta osasun arlokuak bultzatu nahixan, Poliklinika Gipuzkoarekin batera *"Aprende a escuchar a tu corazón. Prevención cardiovascular y hábitos de vida"* hitzaldixa antolatu dau astelehenerako, 19.30xetan Portalean. Bertan Ignacio Gallo zirujau kardiobaskularrak eta Eduardo Alegria kardiologuak egingo dabe berba.



**E-COMMERCE**
Merkatarixeri zuzendutako hitzaldixa emongo dabe astelehenian Portalean, 15.00etatik 16.00etara, merkataritza mota honek eskintzen dittuan aukerak ezagutzera emoteko. Informaziño zabalagua www.spri.es helbidian edo 943254083 telefonuan eskatu leike.

# Urkiko jaixak gaur hasiko dira

**GAUR 19.00-ETAN EKINGO DETSE URKIKO JAIXERI, ARRATEKO ANDRA MARI IKASTETXIAN** umiendako antolatutako jokuekin: Irulitxa fanfarriak auzoko kaliak girotuko dittu, txikiteuan dabizenak animatzeko eta gaur omenduko dittue auzoko nagusixak be, Cepa tabernaren parian. Gabian, 23.00ak aldian kontzertua hasiko da Zipper taldiaren eskutik eta jarraixan Arno DJ-ren emanaldixan dantzan segitzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak.

Bixar, barriz, goizetik ekingo detse egunari: 11.00etan aurtengo nobedadietako bat, I. Txiki Krosa jokatzen hasiko dira. Ordu erdi geruago As Burgas Galiziako Etxeko gaiteruak diania joko dabe auzoko kalietan eta eguardixan, Arrateko Andra Mari ikastetxian karate (Urki-Amaña), dantza (Biraka), Kick Boxing eta Tai-Chi (Ttat gimnasixua) erakustaldixa egingo da eskolako patixuan. Egun osuan segiduko dabe ekitaldixak eta arratsaldian, 19.00etan jaixetako jarduerarik famosuenetakua aillegauko da: Cava eta Otarrainskaren Jaixa, Rio Samba Show taldiak alaittuta. Eta domekan atzera be egun osuan egongo da zer egiñ: bestiak beste IV. Mendi-Lasterketia, XIV. Paella Lehiaketia, umiendako antzerkixa, DJ Arno… (programaziño osua 24. orrialdian).



Aurkezpena, ohikua danez, Aterpe soziedadian egiñ eben. / SILBIA HERNANDEZ

Jai Batzordeko kidiak aurreko barixakuan aurtengo programaziñua ezagutzera emoteko agerraldixan esan ebenez, presupuestua beste batzuetan baiño txikixagiua izanda be, betiko edukixeri eustia lortu dabe, *"gauza berberak antolatuta, baiña diru gitxiago gastauta".*

# Bildu kalera urten zan Ingurumenaren Egunian

**MARTITZENIAN INGURUMENAREN NAZIÑOARTEKO EGUNA OSPATU ZAN** mundu maillan eta, horren harira, Eibarko Bilduk Untzagan karpa ipiñi eban, udal gobernuari aurkeztu detsen Eibarko Natur Ondarearen Aldeko Akordioaren barri emoteko. Bezperan prentsaurrekuan Igor Aldalur eta Soco Baskaranek azaldutakuari jarraittuta, *"gure proposamenian adierazten dittugun zonaldiak jabego pribaua dake eta, hortaz, udalak hitzarmenak siñatu biharko leukez kudeaketa jasangarrixa egiñ ahal izateko".*



Bilduko ordezkarixen ustez babestu biharreko guniak, bestiak beste, jarraixan aittatzen diran honek dira: San Roman eta Asua Errekako pagadixak eta Urko azpiko harizti eta pagadixa; Kortatxo eta Abontzako errekak; Akondia-Kalamua inguruan babestutako natur gunia sortzia proposatzen dabe; Ego ibaixaren kalidadia hobetzeko neurrixak hartzia eskatzen dabe; eta horretxekin batera nekazaritza eta abeltzaintza ekologikuak herrixan bultzatzia nahi dabe.

## ASUN BASAURI ORMAETXEA

*2012ko ekainaren 1ean hil zen, 89 urterekin*

**Familiaren izenean, eskerrik beroena**
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



## Armerixa Eskolako Teknologixa Sarixak banatuta

**EGUAZTEN GOIZIAN BANATU ZITTUEN ARMERIXA ESKOLAKO 11. TEKNOLOGIXA SARIXAK.** Ikastetxiak urtero antolatzen daben lehiaketia DBHko ikasliendako pentsauta dago eta lehelengo sarixa (750 euro) Bergarako Mariaren Lagundia eskolako ikasliak irabazi dabe, "Etorkizuneko baserria" proiektuarekin. Bigarren sarixa (450 euro) La Salle Azitaingo ikasle talde batek eskuratu dau, "Amaña hobetzen" proiektuarekin. Ikasliak, irakasliekin batera, eguazten goizeko ekitaldixan jaso zittuen sarixak Armerixa Eskolan bertan.





## Kanpoko igerilekua bixartik aurrera zabalik

**ZAPATUAN, HILLAREN 9-XAN ZABALDUKO DITTUE KANPOKO IGERILEKUAK:** ohikuari jarraittuta, aurrerantzian eta iraïlla bittartian egunero egongo dira zabalik, 10.30xetan hasi eta 20.00ak bittartian. Iazko udan 30.000 bat lagunek erabilli zittuen kanpoko igerilekuak. Kirol Patronatoko abonatuak ez diranendako sarreriak 5'95 euro balixoko dau (umiendako 4'35 euro).

## Edarto ibilli ziran Mintza Egunian

**AURREKO ZAPATUAN ONDO BAIÑO HOBETO PASAU EBEN SANTURTZIN** ospatu zan Mintza Egunera juandakuak. Bizkaittarrak harrera berua egin zetsen herri diferentietatik bertara gerturatu ziraneri, portuan bertan ongietorrixa emonda eta hamarretakua eskinduta. Horren ostian ederto pasau eben eguna jai giruan, eta han izan ziran …eta kitto! Euskara Elkartearekin Berbetan programan dihardutenetako asko.




Arragueta Hortz-Klinika



Esku onenetan!!!

NATALIA ARIAS: Odontologia orokorrean
ANDONI PEÑARANDA: Zirujia
VIRGINIA GARCÍA-PASCUAL: Ortodontzia
DAMON Sistemarekin (bisita eta ateratze gutxiagorekin)

INPLANTEAK, PROTESIAK, ENDODONTZIA, ORTODONTZIA
Norberaren hortzekin jarraitzeko ODONTOLOGIA

Arragueta, 2 bis B - behea C Tel. 943 53 02 45

**asteko**

**64.000**

**datua**

organo-emotaille dagoz registrauta Alcer Gipuzkoan. 2011n EAEn egindako transplantiak honetxek izan dira: 123 gultzurrun, 61 gibel, 9 bihotz eta 10 birika.

# Esperientzia Eskolakuak oporretara



**GAUR GOIZIAN ESAN DETSE AGUR 2011-12 IKASTURTIARI** Debabarrenako Esperientzia Eskolakuak, Armerixa Eskolan egin daben agur-ekitaldixan. Hauxe 8. promoziñua izan da eta Eibar, Mallabia, Elgoibar eta Debako 24 ikaslek jardun dabe alkarrekin, erdixa andrazkuak eta beste erdixa gizonezkuak.

# Foru Aldundixaren presentaziñua

**GIPUZKUAKO FORU ALDUNDIXAK, BESTE HERRI BATZUETAN EGINDAKUAREN BIDETIK**, programia presentau eban aurreko barixakuan Armerixa Eskolan. Presentaziñuan Aldundiko departamentuetako kidiak hartu eben parte eta, azken urteari errepasua emotiarekin batera, datozen urtietara begira dittuen lehentasun eta ekintza nagusixak zeintzuk diran azaldu zittuen. Horretxek guztiak www.gipuzkoaberri.net helbidian ikusteko moduan dagoz.



Diputaziñoko asmo nagusixak azaldu zittuen ekitaldixan. / SILBIA HERNANDEZ





# Eskola Publikuaren Jaixa Zarautzen

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKUAREN XIX. JAIXA HARTUKO DAU** Zarautzek domekan: "Bale! Bizi garen seinale" leloari jarraituta, 9 gune prestatu dituzte (Borghetto, Desertu Txikia, Malekoia-Irrien Lagunak Kluba, Malekoia-Galtxagorri, Malekoia-Duke, Munoa Plaza, Musika Plaza, Foruen Plaza eta Frontoi Txikia) adin guztietakoek ondo baino hobeto pasatu dezaten. Jaixa 11.00etatik aurrera hasiko da eta egitarau osua www.ehigejaia.org helbidian irakorri zeinkie.





# Armerixa Eskoliaren seillua

**FILATELIXA GUSTOKUA DAKENAK ARMERIXA ESKOLIAREN MENDEURRENARI ESKINDUTAKO** seillua euren bildumeri gehitzeko aukeria eukiko dabe. Atzo presentau eben seilluak 0'85 euroko balixua daka eta hasiera batian 300.000 aleko tiradia etarako dabe.



# Bilduren errepasua urtiari

**EIBARKO BILDUK AURREKO BARIXAKUAN EGIÑ EBAN UDALIAN EMON DABEN URTIAREN** gaiñeko irakorketia, egin dittuen proposamen eta kritikak laburbilduta. Proposamenen artian, bestiak beste, Bardintasuneko Batzordia sortzia bideratu dabela gogoratu eben, *"Txontako Mahaixa sortzeko proposamena be egin genduan, udaleko bihargiñen lan baldintzak babesten ahalegindu gara, herrittarren parte-hartzeko neurrixak proposatu genduazen… 2011n gizarte eragille eta alkarte diferentiekin adostu genduan Herri Programia bultzatze aldera pausuak emon dittugu. Dana dala, proposamenak eta kezkak herrittarrekin eztabaidatu dittugu, horretarako batzar irekixak eginda, Bolo Bolo aldizkarixa kaleratuta eta www.bildueibar.info webgunia martxan ipiñitta"*. Epe horretan hirigintza arluan udal gobernuak egindako batzuk gogor kritikatu zittuen: *"Mendiguren y Zarraua-ko orubea 6 millioi eurotan erostia astakerixa hutsa izan da eta Errebalgo orube publikuaren kudeaketa negargarrixak aurrera darrai"*. Horrekin batera, kezkatuta agertu ziran atal gehixenetan aplikatzen dihardun %10eko murrizketekin, *"lehendik be ittota eguazen hainbat esparru kinka larrixan lagata"*.

# POLIKLINICA GIPUZKOA EIBARRERA IRITSI DA

## EKAINAREN 1-ETIK AURRERA, KONTSULTEN ZENTRO BERRIA










ZURE ZERBITZURA





## ZERBITZUAK

- Erradiologia Zerbitzua
- Analisi klinikoak
- Anatomia Patologikoa
- Mamografiak

## ESPEZIALITATEAK

- Kardiologia
- Dermatologia
- Ginekologia
- Barne Medikuntza
- Oftalmologia
- Otorrinolaringologia
- Pediatria
- Traumatologia
- Urologia

## ITUNPEKOA



ITUNPEKOA



DEITU ETA INFORMAZIOA EMANGO DIZUGU

943 256 100

*Sanjuanetako jai egitarauan dagoen berritasunetako bat eskainiko digute Euskal Western Elkartekoek datorren zapatuan, hilaren 16an, arratsaldeko 17.00etatik aurrera zezen-plazan. Iragarrita dagoen Team Penning eta Catel Penning erakustaldiaren berri eman digute elkarteko partaide diren Conchi eta Paula Ríos eibartarrek (izeba eta iloba).*



**CONCHI ETA PAULA RÍOS (Euskal Western)**

# "Western mundua gerturatuko diogu ikusleari gure ikuskizunean"

***- Zenbat urte daramazue Euskal Western Elkartean?***

Lau urte dira hor sartu ginela, baina elkarteak urte batzuk gehiago ditu. Krisiak, gainera, eragina izan du gugan ere eta azken aldian nahikoa dugu bazkide kopuruari eustearekin.

***- Ikuskizunetik bizi zarete? Edo lan-orduetatik kanpoko zaletasuna da zuena?***

Zaletasun kontua da. Bakoitzak bere eguneroko lana du eta, deskonektatzeko, ikuskizunak eskaintzen ditugu eta, batez ere, gure arteko lehiaketak egiten ditugu. Hemendik ezin du batek bizi: ganadua alokatu behar duzu, hesiak, azpiegitura guztia... Arazoak besterik ez! Western munduak deituta sartu gara hor; batez ere, zaldiekiko bizi dugun zaletasunak erakarrita jarduten dugu.

***- Zaldi bereziak dira zuenak? Edo edozein onartzen duzue?***

Oso bereziak dira. Hiru motakoak erabiltzen ditugu: quarter horseak -Ingalaterrako lasterketetan parte hartzen dutenen ondorengoak-, paint-eak -indioen pelikuletako pintoak- eta appaloos-ak -dalmaten antzerako motak dituztenak, txikiagoak eta bizkorrak direnak-. Zaldi aproposak dira egiten dugun lanetarako: Ameriketako arrantxoetako bizimoduak bultzatutako lehiaketak prestatzen ditugu eta, horretarako, montura indartsuak beharrezkoak dira egun osoan erritmo horri eusteko.




Paula Ríos zaldi gaineko ariketa batean..

***- Bereziak izanda ere, zaldiak prestatu beharko dituzue...***

Bai, tenperamentu lasaiagoa izan arren, hezi beharra dute. Baina heziketa hori zaldia molestatu gabe egin behar da. Gure lehiaketetan zaldia edo ganadua molestatzeak zigorra dakar. Janzkera ere asko zaintzen dugu: koadrozko alkondara, kordoi gabeko botak...

***- Cattle Penning eta Team Penning modalitateak eskainiko dituzue Eibarren. Zer ikusiko du jendeak?***

Cattle-ean behi batekin zaldun batek egiten du lan; eta Team-ean, hiru behi eta hiru zaldun izango dira protagonista. Zezen-plazara moldatu beharko gara bereziki, ez baita eremu egokiena lan horretarako: zaldiek ezingo dituzte beroketak ondo egin... Gure asmoa Olabe zelaian egitea zen, baina ez ziguten baimenik eman.

***- Zenbat denbora iraungo du zapatukoak?***

Ordu eta erditik bi ordura, gutxi gorabehera. Hamabost zaldun izango dira parte hartzen eta Cattle saio bi eta Team-eko hiru eskainiko ditugu seguruenik.

***- Bi modalitate horietatik kanpo, izango dituzue beste batzuk, ezta?***

Team Shorting-a dago, hamar behirekin zeinek denbora gutxien egiten duen. Reining-a ere badugu, western-eko domaren parekoa. Horsemanship-a dago... Eibarkoa entrenamendu moduan hartuko dute zaldunek, normalean behiekin entrenatzeko aukera ez baitute izaten.

***- Inguruko herrietan eskaini dituzue horrelako ikuskizunik? Non ibiltzen zarete?***

Gertuen Zaldibarren izan gara, baina han lehiaketa izan zen. Amoroton, Diman, Zornotzan, Gasteizen... erakustaldiak ditugu eginak eta egiteko. Edozer antolatzen dugula ere, diru mordoa joaten zaigu horretan. Katalunian ere izan gara, baina ezin ditugu lehiaketak jarraikortasunarekin egin. Gure egoera ez da Italiakoa modukoa: han Veronan izan ginen orain dela bi urte eta bertakoak bai profesionalak zirela, horretatik bizi zirenak... Pentsa, 18.000 euroko sariak zituzten!

***- Urduri eibartarren aurrean?***

Gustatuko litzaiguke jendea pozik irtetea gure lana ikusi ondoren. Arduratuta pixka bat.

*Madrilgo gobiernuan hauteskunde legia kanbixatzeko ahalegiñetan dihardue, EAEtik kanpora bizi diranak hamen botua emoteko aukeria euki deixen. Horren gaiñeko debatiak luze jo leike, baiña herrittarrak holako proposamena zelan ikusten daben jakitteko kalera urten dogu.*

# Zelan ikusten dozu kanpuan bizi diranak hamen botua emotia?



**Iñaxio Aristi**
55 urte
elektrizistia

Nik ez dot pentsatzen ondo daguanik, ez dot ondo ikusten hamen zensauta egon barik gero hamen botua emoten hastia. Bestela, geu be kanpora oporretan goiazen tokixetan botua emoteko eskatzen hasi geinke.



**Mertxe Egiguren**
62 urte
etxekoandria

Nahiz eta kanpuan bizi, gauzak legiaren arabera eginda badagoz eta hamen enpadronauta-eta egon ezkero, pentsatzen dot aukeria emon biharko jakuela.

**Eulalia Alegre**
75 urte
jubilaua

Iñoiz hamen bizi izaten egon diranak, gero kanpuan bizi izanda be botua emoteko aukeria euki biharko leukiala pentsatzen dot, hamengo gauzen alde egitteko aukeria emotia ez dot txarto ikusten.



**Jose Luis Castro**
66 urte
jubilaua

Nik ondo ikusten dot, batez be danok ezagutzen dittugun arrazoiengaittik hamendik kanpora juan biharra izan dabenen kasuan. Hamen enpadronauta badagoz, ez detsat arazorik ikusten.











*Martitzenian Armerixa Eskolako aretuan 200 lagunetik gora bat egiñ eben, balore eta hezkuntzaren gaiñeko mahainguruak erakarritta. Armerixaren harira antolatutako ekitaldixak gaixaren gaiñian zer esateko asko daken hiru hizlari jarri zittuan taula gaiñian: Federico Mayor Zaragoza, Angel Toña eta Jonan Fernández. Eta hiruren berbak moderatzen, barriz, holakuetan eskarmentu haundixa dakan kazetarixa: Mariano Ferrer. Berbaldirako ardatza, barriz, baloriak, etikiak eta edukaziñuak osatu eben.*



# BALORE ETA ETIKIA berreskuratzeko sasoian

Mahainguruari hasieria emoteko gonbidatu bakotxak 10 miñutuko interbenziñua egiñ eban eta lehelengua Angel Toña izan zan. Enpresa-etika klasiak emoten dittuan ondarrutarrak esandakuaren arabera, *"gatazkak konpondu ahal izateko lehelengo pausua gatazka daguala onartzia da. Danok dakigu bereizten zer daguan ondo eta zer daguan txarto, baiña dilema etikua ondo daguazen gauzak egitteko moduan dago. Azken aldixan berba asko egitten da balorien krisixaren gaiñian, baiña benetan balorien krisixa oin beste sasoi batzuetan baiño larrixagua da? Azken batian baloriak beti dira bardiñak. Baiña famelixa estrukturetan bai emon da kanbixua, umiak hezitzeko orduan: umia libre izateko hezi bihar da, eta ez nahi dabena egitten lagata".*

Mayor Zaragozaren berbetan, *"historixan lehelengoz gauzak kanbixatzeko aukeria daukagu. Oiñ arte boteria beti gizonezkuen esku egon da eta 'Si vis pacem para bellum' esaldixari jarraittuta, bakia lortzeko aitzakixarekin gerria preparatzen jardun dogu beti. Segurtasun nahi horrek eragin dau Pentagonuak urtian 862.000 millioi euro horretara dedikatzia. Bestalde, giza eskubidien deklaraziñua 'nosotros los pueblos' esaten hasten bada be, agintia beti egon da estatuen eta ez herrixen esku".*

**FEDERICO MAYOR ZARAGOZA**
(Bartzelona, 1934). Hezkuntza eta Zientzia Ministrua (1981-82), Europako Parlamentuko Diputaua 1987xan eta UNESCOko zuzendari nagusixa (1987-1999). Oin momentuan Heriotz Zigorraren kontrako Naziñoarteko Komisiñoko presidentia da, baitta berak sortutako Bake Kultura Fundaziñoko presidentia be.



### Munduaren ikuspegi mugatua

Horrekin batera, gure munduaren ikuspegixa oso mugatua dala agerixan laga eban Mayor Zaragozak: *"Ointxe Europako arazuekin larrittuta bizi gara, baiña mundua hori baiño askoz be zabalagua da, ezin dittugu ahaztu lehelengoz emanzipatzen hasi dan Latinamerika, horrenbeste gauza erakutsi destazen Afrika, India, Txina… Ixillik egotiari laga bihar detsagu, insumisiñuaren sasoian gagoz. Eta andrak boterian egoten hasi diralako libre eta herrittar izateko esperantza euki bihar dogu".*

Jonan Fernándezek esandakuaren arabera, *"krisixak pertsonen alderik indibidualistena, berekoiena eta materialistena oiñarri modura dakan zoriontasunaren ideologixia laga dau agerixan. Hezkuntza be gero eta permisibuagua da, danak balixo dau. Alternatibia solidaridadiaren bidetik etorri bihar jaku".*

Mariano Ferrer kazetarixak Toñak esandako zeozer ipiñi eban mahai gaiñian: "Benetan badakigu ona eta txarraren artian bereizten?". Eta horri erantzuten, Toñak adibide bat erabilli eban: *"Enpresa bat salbatzeko 30 lagun kaleratzia morala da, horrekin beste 100 lagunen lanpostueri eustia lortzen badogu? Eta edozelan be erabagixa dramatikua da. Sistema ekonomikuak be sujeto moralak dira".*



Mariano Ferrer kazetarixak moderatu eban balore eta hezkuntzaren gaiñeko mahai-ingurua.

### Aktore izateko premiñia

Gizakixak dakan askatasunari aparteko garrantzixa emon zetsan Mayor Zaragozak: *"Baiña gero eta gehixago ikusentzule soillak gara, albistiak-eta jaso*

**JONAN FERNÁNDEZ**
(Tolosa, 1962). Baketik-eko zuzendarixa da. 14 urtian (1992-2006) Elkarri-ko koordinadoria izan zan. Iritzi artikulo mordua idatzi dittu eta bakegintzarekin lotutako hamaika kongreso, jardunaldi eta seminarixotan berba egitten jardundakua da.



*eta horrekin konformatzen gara, bertan esandakua geure egitten dogu geure kabuz pentsatzen jardun barik. Aktore izan biharrian ikusliak gara, uniformauta gagoz. Bakotxak bere etorkizuna idazteko ahalmena dauka, beraz adi".* Gaur egunian komunikabidiak NTD ("Nos Tienen Distraidos") ei dira eta horrekin kontuz ibiltzeko gomendatu eben mahainguruan.

Bestalde, gaur egunian gertatzen dihardeuna oiñ urte asko Machadok idatzi ebala esan eban Mayor Zaragozak: *"Es de necio confundir valor y precio".* Justizia, askatasuna, solidaridadia eta bestelakuak 80ko hamarkadan Reagan eta Thatcherri merkatu libriaren mesedetan saldu gentsala azaldu eben eta, *"balore etikuak burtsaren baloriengaittik"* kanbixauta.

Norberak bere arduria eukitziaren garrantzixaz be jardun eben: *"Denok egin geinke zeozer. Kalkutako Teresarekin geguazela, bere misiñorako dirua batzen jardundako batek oso gitxi batu ebela esan zetsan, ozeanuan tantan baten modukua. Eta hori entzunda, holan erantzun zetsan: 'Tantan hori egongo ez balitz, ozeanuak faltan botako eban'. Danok dakagu zeozer egitteko aukeria".*



Armerixa Eskolako ordezkarixak oroigarrixak entregau zetsen gonbidatueri. / S. H.

**ANGEL TOÑA**
(Ondarroa, 1952). Deustuko Unibersidadetik Ekonomia eta Enpresa Zientziatan doktore da. Eusko Jaurlaritzako Lan sailburuordia (1991), EITBko Administraziño Kontseilluko kidia (1989-1991) eta FIARE-ko (Inbersiño eta Aurrezki Arduratsuaren Aldeko Fundaziñoko) presidentia (2001-2008) izandakua.



### Umien edukaziñuaz

Gaur egunian umien edukaziñua batez be eskoliaren esku lagatzeko joeria oso zabalduta daguala be aittatu zan. Baiña publikuan eguan batek esan eban moduan, *"Afrikan esaten dabe ume bakarra edukatzeko herri osua bihar dala".* Horregaittik, *"umieri adibide ona emotia danon arduria dala"* esan eben. Edozelan be, Toñaren berbetan, *"gaztiak ez dira tontuak, formaziñua jaso dabe eta badittue euren baloriak, euren buruari gauzak galdetzen detsez".* Horrekin batera, edukaziñua bizitza osuan zihar luzatzen dala be argittu eben.

Publiko artian ingurumenaren gaiñeko kezkia be azalaratu zan eta Mayor Zaragozak erantzun eban: *"Rio de Janeiroko konferentzixa egin zanetik 20 urte pasau dira eta beittu zelan gagozen. G8, G20 eta holakuekin ahaztu egin bihar gara, munduan 196 herrialde gagoz. Planetarekin ahaztuta gagoz eta hori onarteziña da".*

Eta krisi ekonomikuaren harira, kooperatibismua alternatiba egokixa izan leikian galdetu eban baten batek. Toñaren berbetan, *"oin dala egun batzuk nunbaitten irakorri neban MCC taldiak irabazixak %30 bajau dittuala, baiña enpleguari eustia lortu dabela. Oso albiste txikixa izan zan, neretako urteko albiste onena izan biharko litzakeen arren. Ez dakit kooperatibia alternatibia dan, baiña argi dakat munduak Euskadiko indar kooperatibua izango baleu oso bestelakua litzakeela".*

Eta holan, ixa konturau barik mahaingurua agurtzeko ordua aillegau zan. Hori bai, parte-hartzaille bakotxari Armerixako oroigarri bana emon zetsen eta, urten aurretik, eskolako liburuan siñatu eben.



200 lagunetik gora izan ziran martitzeneko mahai-inguruan. / Silbia Hernandez

TEEN-AJEA

**Enpresa proiektuak garatzeko laguntza eskaintzen du Urrats Bat programak. Korko lehen saria eskuratu dute aurten DSBITNET enpresa sortu duten David eta Alex Villarrubiak, Telekomunikazio sistemetan eta informatikan adituak eta Armeria Eskolako ikasle-ohiak.**




### DAVID & ALEX VILLARRUBIA (DSBITNET):

# “Urrats Bat-ek eskainitako laguntza ezinbestekoa da”

***- Zer izan da zuentzat Urrats Bat saria jasotzea, bai pertsonalki bai profesionalki?***

Sari horrek Euskadiko sustatzaile berritzaileenak garela esan nahi du. Pertsonalki harro sentitzeko arrazoia ematen digu eta, profesionalki, sariak gure bezeroen aurrean saltzeko aukera ematen digu; gainera, horrek indarra emango digu beste produktu batzuk sortzeko.

***- Lan asko egin behar izan duzue saria jasotzeraino?***

Asko, egunero saiatuz gure produktu-kartera hobetzen.

***- Nola hasi zen proiektua?***

Armeria Eskolan, kurtso azkeneko proiektu baten barruan. Proiektua amaitu eta gero, ideia garatu genuen; handik sei hilabetera enpresa sortzea erabaki genuen.

***- Zer irizten diozue Urrats Bat programari?***

Urrats Bat programa beharrezkoa da, asko laguntzen baitu, bai ekonomikoki bai negozio-plana egiterakoan. Gainera, Armeria Eskolan izan genuen gure lehenengo bulegoa; hor hasi zen dena. Sustatzaileentzat oso laguntza garrantzitsua da.

***- Krisia denon ahotan dago. Ez dizue beldurra ematen 'horra kanpora' irtetea?***

Axolagabeak ez gara eta, krisiari beldurra edo errespetua izanda ere, aldatzeko derrigorrezkoa da zeozer egitea.

***- Zer da DSbitnet? Zer eskaintzen duzue?***

DSBitnet-ek "digital signage"ko inplantazioak egiten ditu: mota guztietako panel digitaletako (LCD pantailak, LED, totem, kiosk, videowall, ...) komunikazio kanalak sortzen ditugu. Guztia multimedia kudeatzaile software baten bidez kontrolatzen dugu. Kanal horientzako multimedia edukiak ere sortzen ditugu: aurkezpen bideoak, eguraldiko informazioa, interaktibitate taktilak, osasun aholkuak, albisteak, menu digitalak...

***- Nola doa enpresa?***

Egia da, krisia dela medio, gure bezeroen profilak asko aldatu direla orain arte. Hala eta guztiz ere, ez dugu dirurik galdu eta gure inbertsioek gastuak estaltzeko ematen digute.



Autobusa 09:30etan Egogainen. Izen-ematea: zerozaboreibar@gmail.com / 619196034.






**Ekainaren 2an Iturburun "XVI. Kirola Euskaraz bizi" jaia ospatu zuten: ikasle, langile eta gurasoen arteko "Olinpiadatxoak". Sekula baino gehiago, egun osoko hizpidea EUSKARAren ERABILERA izan zen. Argi dugu-eta denona dela erronka!! Denon ardura dela euskara erabiltzea eta euskaraz mintzatzea; hau da, EUSKARAZ BIZITZEA. Hauxe izan zen erabilitako leloa: *"Hartu hitza!! Zeurea da txanda!!"*. Eta horrela egin zuten: euren txanda hartu eta KIROLTASUNEZ egun bikaina igaro.**




















































# 2012ko Kirola Euskaraz Bizi





















## Romarateren balentria: urrezko bost domina eta Espainiako marka bi

**PONTEVEDRAN JOKATUTAKO ESPAINIAKO IGERIKETA PARALINPIKOEN TXAPELKETETAN**, Urbat igeriketa taldeko Ander Romaratek mailarik gorenean jardun zuen beste behin eta, bizkar modalitateko 50 eta 100 metroko probetan eta bularreko 50, 100 eta 200etan nagusitzeaz gain, Espainiako bi marka berri erdietsi zituen. Errekor horiekin batera, errelebotan zilarrezko domina bereganatu zuen.

**San Juan igeriketa saria bihar Ipuruan**

Eibarko beste zortzi igerilari izan ziren Lasarten Parte-hartze mailako Gipuzkoako txapelketan eta, horietatik, ez ziren gutxi izan podiumera igo zutenak. Ander Salaberriak urrezkoa lortu zuen 200 estilotan eta brontzezkoa 200 krawlean, Ane Kruzelaegik urrezkoa eskuratu zuen 200 estilo proban eta Lucia Irigoienek brontzezkoa 100 tximeleta modalitatekoan.

Bihar, bestalde, San Juan Saria jokatuko da Ipurua kiroldegian goizeko 10.30etatik aurrera. Ikuskizuna ziurtatuta dago, Urbat-Urkotronik taldeko igerilariez gain, inguruko herrietako igerilari onenak ere izango direlako.



Bestela ere lehiakide bikaina bada ere, hazi egiten da Romarate txapelketetan.



Asola-Berriko hiru-txirloko talde osoa.

## Gipuzkoako hiru-txirlo txapelak ihes egin zion Sergio Rodríguezi

**AZKEN JARDUNALDIETAN EZ DU JAKIN IZAN HARTUTAKO ALDEARI EUSTEN** eta, azkenean, parretan izan bada ere, txapelak ihes egin dio txapelketa guztian nagusi izan den Sergio Rodríguez Asola-Berriko ordezkariari. 22na berdindu zuen eibartarrak San Migueleko Javier Osoro txapeldun berriarekin eta hiru txirlora geratu dira Bittor Ugarteburu eibartarra eta Gorka Etxaniz eta Beñat Astigarraga Floreagako ordezkariak. 43. edizioa zapatuan itxi zen Asola-Berrin, gure herriko elkartearen 50. urteurrenaren ospakizunetako egitarauaren barruan eta, txapelketa nagusiak eibartarrei ihes egin bazien ere, emakumezkoetan Olaitz Rodríguez nagusitu zen eta taldeka ere Asola-Berri izan zen nagusi, 83 txirlorekin, San Migueli hiru txirloko aldea aterata. Egun horretan jokatutako Eibarko txapelak Mikel Urkiaren buruan hartu zuen kokalekua.

## Larreategi xakelaria Leongo epaileen elkarketan



**ESPAINIAKO XAKE FEDERAZIOAK ETA BATZORDE OLINPIKOAK ANTOLATUTAKO** epaileen elkarketan izango da Klub Deportiboko Mikel Larreategi oraingo astebururuan; Leonen Nazioarteko Federazioak azken aldian onartutako araudi aldaketak aztertuko dira. Bestalde, hilabete eta erditik gora iraun duen Groseko Udaberriko txapelketa amaituta, Deporrekoekin jardun duen Asier Etxagibel arrasatearra izan da ordezkari onena gureen artean: 9. postuan amaitu du torneoa, Jon Aranak 16.ean, Edu Olabek 19.ean eta Alex Aranzabalek 24.ean.

## Eibartarrak Euskadiko txapeldun gimnasia erritmikoan



**EZIN HOBETO AMAITU DU DENBORALDIA IPURUA KLUBEKO JUBENIL MAILAKO TALDEAK**, aurreko zapatuan Durangon irabazitako Euskadiko Amateur Txapelketarekin. Graxi Arregik, Nahia Bilbaok, Olaia Golzarrik eta Ane San Martinek osatutako laukoteak urrezkoa bereganatu zuen, bi uztai eta lau mazekin egindako lanarekin. Banakakoan, bestalde, Graxi Arregik zilarrezko domina eskuratu zuen.

Euskadikoan eskuratutako emaitza horiekin, jubenilek guztiz borobiltzen dute Ipuruako eskolartekoen denboraldia: ezin dugu ahaztu Gipuzkoako txapelketan talde guztiek izan zirela podiumean (zilarra izan zen jubenil, infantil eta alebin mailetako taldeentzat eta brontzea kadeteentzat).

Bihar goizean El Corte Inglés-eko terrazan erakustaldia egingo dute Ipuruakoek eta hilaren 17an Untzaga plaza izango da euren jardunaren lekuko, Sanjuanetako ohiko ikuskizunean.



Kopako finalaren amaieran denboraldian irabazitako sariak banatu zituzten. / FELIX MORQUECHO

## Koskorrek den-dena irabazi du foball-zaletuan

**KOPAKO FINALEAN EZDOK TALDEARI 1-0 IRABAZI ONDOREN (JUANEN GOLA)**, denboraldi honetan ez dago Koskorri ihes egin dion txapelketarik. Modu horretan, Liga, Kopa eta Kiroljokoa trofeoa (azken hau Ermuko txapeldunari irabazita) bereganatu ditu izen berriko taldeak. Sariak ere asteburu honetan banatu ziren: kiroltasunarena Durangok irabazi du eta gol gutxien jaso dituen atezaina (Ricardo Manson) eta goleatzaile nagusia (Juan Carlos) Koskorrekoak izan dira. Hori bai, EzDok-eko David Sevillano izan zen Kopako finaleko jokalari onena.



LEIRE ITURBE

## Caja Rural nagusi San Juan txirrindularitza sarian

**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK ANTOLATUTAKO JUNIOR MAILAKO PROBAREN** 77. edizioa jokatu zen aurreko domekan eta, Caja Ruralen nagusitasunaren erdian, Alex Aranburu talde horretako ordezkaria izan zen onena parte hartu zuten 118 txirrindularien artea. Irabazleak aurrea hartu zien Laguntasunako Adrian Murieli eta Ahetze Arratibel taldekideari. Caja Ruralek, taldekakoa irabazteaz gain, tarteko helmugak (Eriko Mujika) eta 1. urteko junioarraren saria (Alex Aranburu) bereganatu zituen. Xabier Goikoetxea izan zen Debabarrenako onena.

## A. Altuna Euskadiko txapelduna olinpiar distantziako triatloian



**AURREKO ZAPATUAN JOKATUTAKO ONDARROAKO TRIATLOIAN, OLINPIAR DISTANTZIAKO** (kilometro eta erdi igerian, 40 bizikletan eta 10 antxitxiketan) Euskadiko txapelak izan ziren jokoan; eta hor Eibar Triatloi Taldeko Alejandro Altuna onena izan zen beterano 2 mailan. Berak txapela jantzeaz gain, Ane Ziaranek 2. postua eskuratu zuen 23 urtetik azpikoen artean (sprint modalitatean irabazitako txapela ezin izan zuen berretsi modalitate honetan), Bailie Ashleek irabazitako probako sailkapen absolutuan 6. postuan amaituta.

Bihar, bestalde, bere gogortasuna eta parte-hartze zabala direla-eta, oihartzun handiko Zarautzeko triatloia jokatuko da, 650 triatleten parte-hartzearekin eta Ziaranek debuta egingo du proba horretan.

## Kalamuako judokak nagusi Arrasaten

**DEBAGOIENEKO HERRI HORRETAKO VI. SAN JUAN JUDO TORNEOAN**, hainbat klubetako 120 bat neska-mutil izan ziren parte hartzen eta gure herriko ordezkariek bikain erantzun zuten beste behin. Iker Antolínek, Asier Núñezek, Asier Sebastianek eta Ander eta Naiara Fernándezek urrezko domina bana irabazi zuten; Javier Criadok eta Gaizka Merinok zilarrezko bana eskuratu zuten eta Asier Divassonek brontzezkoa ekarri zuen. Bihar ordezkaritza izango du Kalamuak Azpeitian, bertako Kimura taldeak antolatzen duen torneoan.



## Urbateko waterpolistek agur esan diote estatuko azken faseari

**WATERPOLO KADETE MAILAKO URBAT-URKOTRONIK-EK GALDU EGIN ZUEN** Iruñean Waterpolo Navarrarekin eta, emaitza horrekin, sailkapeneko laugarren postuan amaituko dute liga. Jardunaldi bakarra falta da liga amaitzeko eta, dagoeneko, estatuko azken fasean parte hartzeko txartelak ihes egin die eibartarrei, sailkapeneko bi lehenengoek bakarrik hartuko baitute parte hor. Taldearen itxaropenak Gipuzkoako ligaren finalean daude orain, Fortuna Txistarriren aurka ekainaren 16an jokatuko duten partiduan. Behin partidu hori jokatuta, denboraldia Mutrikun (ohikoa denez) itxi aurretik, infantil eta kadete mailetako ordezkariak Kataluniara egingo dute bira.



# Eibar Eskubaloia jokalari berrien bila



**DATORREN ASTEKO EGUAZTENEAN ETA BARIXAKUAN ENTRENAMENDUAK** egingo dituzte Eibar Eskubaloikoek kirol hori praktikatu nahi duten 1999an eta 2000n jaiotako neska-mutikoekin, hau da, LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailakoekin: lehenengoek alebin mailan jokatuko dute eta bigarrenek infantil mailan. Mutilek arratsaldeko 17.00etan izango dute entrenamendua eta neskek 18.30etan.



# San Juan pilota txapelketa Astelenan

**BI MODALITATETAN JOKATUKO DA 18. EDIZIO HAU:** lau eta erdiaren barruan eta binaka. Martitzenean, hilaren 12an, eta 19.00etan hasita, Larreategi eibartarrak eta Zubizarreta eskoriatzarrak Elgoibarko Arrizabalaga-Agirrebeña bikoteari egingo diote aurre. Kaiolaren barruan, bestalde, Bengoetxea eta Egaña arituko dira, nor baino nor.

# IV. igoera Galdaramiñora

**DOMEKA GOIZEAN MENDI-LASTERKETA HORRETAKO** laugarren edizioa jokatuko da, 11.00etan hasita. 15 kilometroko ibilbidea du probak, 1.148 metroko desnibelarekin. Urkitik abiatuta, Galdaramiño, Topinburu eta Azkonabitzatik pasatuko dira parte-hartzaileak Urkira itzuli aurretik.





Oscar Riguera eta Sergio Salgado debarra.

# Alberto Ferreiro indartsu bueltatu da squash-ean

**LAU ORDEZKARI IZAN ZITUEN EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO SQUASH BATZORDEAK** Sestaoko kiroldegian jokatutako Benedikta Euskal txapelketan eta Alberto Ferreirok, ia urtebete jokatu barik egonda ere, bikain jardun zuen, 3. postuan amaitzeko; Jon Losadak 6. postuan amaitu zuen eta Sergio Salgado debarra final laurdenetaraino iritsi zen. Oscar Ferreirok, bestalde, ez zuen zorte handirik izan eta lehenengo partidua galdu zuen; hala ere, aurretikoetan finalerdietara iritsi zen.

Datorren asteburuan (hilaren 15ean eta 16an) Eibarko Squash txapelketaren IX. edizioa jokatuko da Ipuruan eta izena eman daiteke dagoeneko: joalfeig@yahoo.es helbidean edo 609-422120 zenbaki telefonoan.






Kaleetan Kantuz-eko partaideek egun handia bizi izan zuten aurreko zapatuan, ikasturtea amaitzeko ohiko ekitaldian herri guztia zeharkatu eta abestien doinuekin gure kaleak beteta. Horren berri jaso eta ikasturte osoko "martxa berezi" horretaz jabetzeko, Elisa López taldeko kudeatzailearekin izan gara (argazkian Felix Elkoroiriberekin zapatuko, ekitaldian).



### ELISA LÓPEZ (Kaleetan Kantuz):

## "Azaroan Istanbulera joango gara astebeterako"

***- Zelan joan zen zapatuko zuen egun handi hori?***

Zoragarria izan zen. Hori zezen suharrarekin topo egin genuela: beroak ez zuen gure lana erraztu-eta, 60 urtetik gorakoa baita gure bataz bestekoa. Aretxabaleta eta Arrasatetik etorri zen jendea eta guztion arteko giroa eta harmonia nabaritu ziren kaleetan.

***- Lagun berezia ere izan zenuten egun horretan, ezta?***

Arrasatear batekin ezkonduta dagoen hegoamerikarra beste hemisferioko abestiekin etorri zitzaigun, euskeraz-eta abesteko. Hango musika "gure joeretako" bat da eibartarrontzat eta lagun izan genuen abestu eta dantzan egiteko.

***- Ia egun osoko plana izan zenuten...***

11.00etan batu ginen, ogitarteko bat jan, 12.00etan alkateak zoriondu gintuen eta irten ginen, 14.30ak arte kalez-kale. Globoak lagun, Untzagan, Bidebarrietan, Urkizun, Ibarkurutzen eta T. Etxebarrian abestu genuen, Ego-Gaineko anoapostuan inguruko ur-botila guztiak agortu arte. Gero, udaletxeko arkupeetan bazkaltzeko eta 18.30ak arte musikaz eta doinu alaiez gozatzeko.

***- Zenbatgarren edizioa izan zen zapatukoa?***

Ospatzen dugun hirugarrena izan zen, Kaleetan Kantuzek bost ikasturte egin baditu ere. Gure aktibitatea Ikastenekoa da, azken honek Esperientzia Eskola kudeatu eta bere gain hartzen dituen proiektuetako bat. Halako asmoak eskualde osora zabaltzea ere gure gogoen artean dago.

***- Entseguak zenbatero egiten dituzue? Zintzoak zarete parte hartzerakoan?***

Hilero bitan entseiatzen dugu (hileko 2. eta 4. eguenetan) eta bigarren zapatuetan irteten dugu kalera. Baita Olentzerorekin, Euskeraren Egunean, Kalderoetan ere... Entseguetan 60-70 lagun izango gara; eta, kalera irteterakoan, hortik gora, 100 bueltan. Gurea ez da erakustaldiak egitea, baina entseiatuz gero hobeto irteten da beti. Ni txarrena naiz abesten, baina begi ona dut eta konturatzen naiz horretaz. Gurea borondatezko lana bada ere, Mª Jesus Agirre gure zuzendariak egiten duen lana bikaina da.

***- Etorkizunerako kontatzeko moduko plan berezirik?***

Istanbulera joango garela azaroan, astebeterako, bertan egingo den talde amateurren jardunaldietara. Alkateak ere intsignia batzuk edo emango dizkigu hara eramateko.



## Hip-hop ikasteko klaseak

**Biraka dantza eskolakoek datorren ikasturterako hip-hop klaseetan izena emateko** epea zabalik dute. Ikasturte berrirako ordutegiak honako hauek izango dira: martitzen eta eguenetan 19.30etatik 20.30etara (helduak, guraso etab.) eta barixakuetan 18.00etatik 19.30etara (talde mistoa) eta 19.30etatik 21.00etara (lehiaketa absolutua). Informazio gehiagorako 679237611 telefono zenbakira deitu daiteke (Maria) edo Biraka-tik pasatu (Txirio Kale,1).

## Joskintza eta puntu erakusketa



**Ekainaren 15era arte Untzagako jubilatu etxekoen joskintza eta puntu erakusketa** ikusgai izango da Untzagako jubilatu etxean. Erakusketa astegunetan 19.15etatik 20.15etara egongo da zabalik eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara.



## Abeslari gazteak Andoainen

**Juan Bautista Gisasola Korua Andoainen ospatzen den** XXIV. Haurren Euskal Jaialdian egon zen parte hartzen domekan, bai goizeko ibilbideetan bai arratsaldeko kontzertuan.

## Koadrilentzat diru-laguntzak

**Euskara-Kultura batzordeak sanjuanetan parte hartuko duten** koadrilei jakinarazi nahi die kamisetak, instrumentuak eta abar erosteko diru-laguntza jasotzeko Kultura sailarekin harremanetan jarri beharko direla, 943708435 telefonoan edo cultura@eibar.net emailean.

## Gerrako umeen lekukotasunak grabatuko ditu Badiharduguk

**BARIXAKU GOIZEAN EGO IBARRA BATZORDEAK ETA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAK** elkarren arteko lankidetza hitzarmena sinatu zuten, "gerrako umeak" grabatzeko. Izan ere, Ego Ibarra batzordeak urtarrilaz geroztik dihardu Gerra Zibileko ebakuazio espedizioetan joan ziren ume eibartarrei buruzko informazioa batzen eta, hiru hilabeteko ikerketa-lanari esker, 205 umeri buruzko datuak, argazkiak eta agiriak batu dituzte. Barixakuan sinatutako hitzarmenari esker, oraindik bizirik dauden eta berba egiteko prest dauden gerrako ume horietako 10 elkarrizketatuko dituzte ekaina eta uztaila bitartean. Elkarrizketak Ainhoa Bernabe historialariak egingo ditu eta, Badiharduguk ahozko ondarea jasotzeko beste proiektuetan egindakoaren bidetik, elkarrizketa hauek ere bideoan grabatuko dituzte, *"ahal den kasuetan euskeraz, kanpoan egon diren lagunek aspaldiko eibarrera gorde dutelako eta, bestela, gazteleraz"*. Orain arte gerrako ume izandako 70 bat lokalizatu dituzte, baina euretako askok ez dute bizi izandakoaz berba egin nahi. Horregatik, aurkezpenean euren lekukotasunak jasotzearen garrantzia azpimarratu zuten behin eta berriz, eta oraindik zalantzan daudenei elkarrizketak egitera animatzeko eskatzen diete. Elkarrizketetan irtengo diren gogoeta eta bestelakoak hunkigarriak eta kasu askotan mingarriak izango direla jakinda, sentsibilitate haundiarekin jardungo dutela azaldu dute Badihardugukoek. Uda aurretik egingo diren 10 elkarrizketa horien ostean, irailetik aurrera elkarrizketa berriak egiten joateko asmoa daukate, elkarrizketatu nahi diren lagunen baietzak jasotzen joan ahala.



Aurkezpenean Sarasua, Bernabé, Larrañaga eta De los Toyos. / SILBIA HERNANDEZ

## Goruntz eta Easo elkarrekin kontzertuan

**GAUR 20.30-ETAN KONTZERTUA EMANGO DU GORUNTZ ABESBATZAK**, San Andres elizan, Easo abesbatzako kideekin batera. Horrela ospatuko dituzte abesbatzaren sorreraren 20 urteak, kontzertu berezia eskainita. Lehenengo zatian ahots zuriz osatutako eibartarren taldeak jardungo du eta haien atzetik, berriz, Easo abesbatzako gizonezkoek. Kontzertuari amaiera emateko, berriz, biek elkarrekin abestuko dute.



## laburrak

### MARMITAKO TXAPELKETA

Ekainaren 25ean 11.30etatik aurrera Untzagan jokatuko den XIX. Marmitako Txapelketan parte hartzeko izena emateko azken eguna hilaren 19a izango da. Interesatuek lehenbailehen jo beharko dute Pegorara izena emateko, gehien jota 30 bikote onartuko dituzte eta.



### GORUNTZ-EN ZOZKETA

Goruntz abesbatzak asteburu bat Santillana del Mar-en oparitzeko zozketan saria ekainaren 1ean ONCEren zenbaki sarituarekin bat datorren txartela duenarentzat izango da, hau da, 3.251 zenbakia duenarentzat. Irabazleak ekainaren 20ra arte izango du saria eskatzeko aukera, 67. Posta Kutxara idatzita edo 943207511 telefono zenbakira deituta.

# Jesus Sologaistoa Oregui

## I. URTEURRENA (2011-VI-9)



***"Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ezta zure kemen, itxaropen, bizipoz eta aurrera egiteko gogoa ere"*** ZURE EMAZTE ETA SEMEAK

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (EKAINAK 10) EGUERDIKO 12etan, SAN PIO X ELIZAN.**



## Armagintza museoa pausoz pauso



**LEHEN HEZKUNTZAKO UMEENTZAKO LIBURUXKA DIDAKTIKOA PRESTATU DUTE** Eibarko Armagintzaren museoan: "Museoa pausoz pauso". Liburuxka museoan bertan eskuratu daiteke, bisita egin ondoren. Edo nahiago izanez gero, Armagintzaren museoaren web orritik (www.armia-eibar.net) deskargatu daiteke. Horrez gain, museoak bisita gidatuak eta beste hainbat aukera ere eskaintzen ditu. Besteak beste, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta 6-10 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzat ordubete eta 20 minutuko iraupena duten bisitaldiak eskaintzen dituzte: bisita-tailer honetan, gaztetxoenek areto bakoitzeko edukirik aipagarrienak finkatu ahal izango dituzte modu ludikoan, jolas didaktiko desberdinen bidez, ibilbidearen geldialdi bakoitzean denbora-pasa moduko ariketak eginez. Bisitaldi mota bi antolatu dira: bata bisita gidatua, irakasle eta ikasleentzako; eta bestea, familiei zuzendutako bisitaldia, guraso eta sema-alabek museoa elkarrekin ezagutu dezaten, Eibarko historia industrialaren nondik-norakoak jaso ditzaten eta museoan elkarrekin goza dezaten.




## Garagardo Jaia martitzenetik aurrera

**URTEROKO MODUAN, EIBAR RUGBY TALDEAK GARAGARDO JAIA** antolatu du: datorren martitzenean 19.00-etan hasi eta hilaren 17ra bitartean, Untzagan ipiniko duten karpan ukondoa, saltxitxak, oilasko brotxetak… jateko aukera izango da, nahi beste garagardorekin lagunduta eta gainera gauero zuzeneko musika eskainiko dute.

## Euskal Dantzaren Adierazpena interneten sinatzeko aukera

**APIRILAREN 21-EAN EUSKAL DANTZAREN ADIERAZPENA ADOSTU ETA SINATU** zen Eibarren. Sinatutako agiriak euskal dantzaren alorrak dituen kezka, proposamen, eskaera eta adostasunen sintesia jasotzen du eta udaletxeko ekitaldian dantza munduko ehun bat ordezkarik sinatu zuten, baina oraindik ere sinatzeko aukera badago, interneteko http://www.dantzan.com/blogak /biharkosoka/ helbidean. Orain arte dantza tradizionalaren alorreko norbanako eta elkarte nagusiek sinatu dute adierazpena, baina talde eta dantzazale guztiek sinatzeko aukera dute. Besteak beste, dantza tradizionalaren sektoreak beharrezkotzat jotzen dituen urratsak dantza tradizionaletan sakontzeko ikasketa batzuen beharra, dokumentazio zentroa eta ikerketa alorra sendotzea dira.





## Zeramika eta Dibujo ikasleen erakusketa

**AURREKO BARIXAKUAN INAUGURATU ZUTEN PORTALEKO ERAKUSKETA ARETOAN** Zeramika, Pintura eta Dibujo Udal Eskoletako ikasleen ikasturte amaierako erakusketa. Ikasturtean zehar ikasleek egindakoak ekainaren 17ra arte egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Bestalde, ikasturte berrirako matrikulazio epea atzo zabaldu zuten eta izena eman nahi duenak irailaren 7ra arte izango du horretarako aukera, Pegoran.






# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, ADEI, maiatzaren 26xan bi urte bete zenduan-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IZARO Bernedo, eguaztenian 5 urte bete zenduazen-eta. Neska haundi! Muxu potolua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JOSEFINA Kortaberria Unzueta, astelehenian 92 urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, domekan zazpi urte beteko dozuz-eta. Aupa, txapeldun! Muxu potolua aitta eta amaren partez.



Zorionak, JULEN Gómez Bastida, haraiñegun hiru urte egin zenduazelako. Muxu pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MADDI, zure 9. urtebetetzian. Laztan haundi bat famelixa eta lagunen partetik. Ondo pasau gaurko merendolan!



Zorionak, MARKEL, gaur sei urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MAIDER Urizar Bravo, martitzenian zazpi urte beteko dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, ESTHER Losada, astelehenian bost urte egin zenduazen-eta. Aitta eta amaren partez.



Zorionak, LIBE, atzo zazpi urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat danon partez.



Zorionak, IZARO, martitzenian lau urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZARO, martitzenian urtebete egin zenduan-eta. Etxeko printzesarentzat, famelixaren partez.



Zorionak, BEÑAT, etxeko piratak hiru urte egingo dittu-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Sugar-en partez.



Zorionak, JONE, martitzenian lau urte egin zenduazen-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, UDAZKEN, gure potxolak bost urte egingo dittu bixar eta primeran ospatuko dogu. Egin barre beti!!!



Zorionak, SARA Leturiaga, gaur 11 urte betetzen dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ALBA Sierra Gómez, haraiñegun bi urte bete zenduazen-eta. Muxu pillua famelixaren partez.



Zorionak, BEÑAT, astelehenian bi urte egingo dozuz-eta. Muxu bat gurasuen eta amamaren partez.



Zorionak, INES, astelehenian bost urte egin zenduazen-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, NAHIA. Uda on bat pasa. Etxekuen partez.



Zorionak, MADDI eta osaba ASIER. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI (domekan hiru urte egingo dozuz) eta amama LUPE (gaur betetzen dozuz-eta urtiak). Etxekuen partez.

## horoskopoa

**ARIES**
Sinestu ezinekoko zerbait gertatuko zaizu. Pentsatuko duzu gauza bat askotan pentsatzeagatik egia bihurtzen dela. Beharbada horrela da.

**TAURUS**
Zerbait gehien behar duzun momentuan huts egiten dizu. Ez zabiltza batere zorteko, baina egia esan ez daukazu inongo errurik.

**GEMINI**
Hiru aukera izango dituzu, baina bakarra aukeratu ahal izango duzu. Distiratsuena hartu nahi izango duzu eta agian hori da aukera egokiena.

**CANCER**
Zure izarra lo dago eta itzaltzen doa. Orduan konturatuko zara orain arte lortu duzun dena zure lanagatik izan dela, zortea zuk bilatu duzula.

**LEO**
Sudurra dariola izango duzu aste osoan eta mukizapi egokiak izan beharko dituzu azala ez gorritzeko. Ez zara tapatzen... eta gero gerokoak.

**VIRGO**
Ez egin kasu handirik zurrumurruei. Jendeak gauza asko asmatzen ditu, min egitea gustatzen zaie-eta. Zuk zeurearekin jarraitu eta kitto!

**LIBRA**
Kokoteraino zaude besteek zuk egiten duzuna kontrolatzearekin. Datozen egunotan argi lagako diezu buruan dituzun kontu guzti horiek.

**SCORPIUS**
Non dira aspaldi zenituen ametsak? Atzera begiratu eta berriz gauzak lortzeko bidean ipiniko zara. Nahi duzuna lortzea posible izango da.

**SAGITTARIUS**
Zure burua rasta batzuekin Karibeko uharte batean ikusten duzula? Ea, Marley, errealistagoa izan zaitez eta amets egiteari laga! Ilerik baduzu ala?

**CAPRICORNIUS**
Kontuz errepidean. Badakizu obrak nonahi daudela eta begiak zabalik izan behar dituzula auto berrian zoazenean. Ez ibili txantxetan!

**AQUARIUS**
Dena ondo joango den itxaropenaz ekingo diozu asteari eta, izarrek diotenaren arabera, zuk nahi bezala irtengo da dena. Zortekoa zu!

**PISCIS**
Joan zaitez prestatzen San Juan jaietarako, benetan bereziak izango dira-eta zuretzat. Egun mundialak pasako dituzu! Dudarik ez izan.

## Barixakua 8

**URKIKO JAIAK**
**19.00.-** Jaien hasiera, Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**19.15.-** Kalejira, Irulitxa fanfarrearekin.
**19.30.-** Jokoak, Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**19.30.-** Nagusiei omenaldia. Cepa taberna parean.
**20.00.-** Herri-txikiteoa, fanfarreak lagunduta.
**23.00.-** Kontzertua Zipper taldearen eskutik eta jarraian Arno DJ-ren emanaldia.

**DANTZA**
**20.00.-** Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseo Antzokian.

**KONTZERTUA**
**20.30.-** Goruntz eta Easo abesbatzen kontzertua. Goruntz-en XX. urteurrena. San Andres Elizan.

**KONTZERTUA**
**22.00.-** Eroanazan (Eibar) eta Pajaro 1 Pajaro 2 (Gasteiz). Gaztetxean.

## Zapatua 9

**IGERIKETA**
**10.30.-** Sanjuanetako XXIV. Igeriketa Txapelketa. Ipurua Kiroldegian.

**FOBALLA**
**11.00etatik 01.00etara.-** Eibarko II Futbol Festa. Antolatzailea: Jump In Elkartea.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**
**11.00.-** Ipurua Gimnasia Erritmikoa erakustaldia. El Corte Inglés-eko terrazan.

**URKIKO JAIAK**
**11.00etatik 12.00etara.-** I. Txiki Krossa.
**11.30.-** Diana, As Burgas Galiziako Etxeko gaiteroen eskutik. Urkiko kaleetan.
**12.00etatik 13.30etara.-** Karate (Urki-Amaña), dantza (Biraka), Kick Boxing eta Tai-Chi (Ttat gimnasioa) erakustaldia. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**12.00etatik 14.00etara.-** Umeentzat jolasgunea. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**12.30.-** Salda eta txorizoa banatuko dira, As Burgas Galiziako Etxeko gaiteroek girotuta. Cepa eta Vilaren arkupeetan.
**16.00.-** Emakumeen arteko X. koadrangular foball txapelketa. Babeslea: C.D. Urki. Eibarko Foball Eskola, Pauldarrak, Leioa Emakumeak eta Club Gasteiz Cup. Unbeko kirolgunean.
**16.00etatik 18.30etara.-** Umeentzat jolasgunea. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**17.00.-** XI. Toka eta Igel-Toka Txapelketa. Polonia Etxeberria kalean (Rioja tabernaren ondoan).
**19.00.-** Cava eta Otarrainskaren Jaia, RioSamba Show taldeak alaituta. Laguntzaileak: Nuevo, Cepa, Rioja, Bodega eta Vila tabernak.
**21.45.-** Herri-afaria. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**23.30.-** Berbena, Continente orkestrekin. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

**LARUNBATEAN ZINEMA**
**18.00.-** "Los Pitufos" pelikularen emanaldia. El Corte Inglés-ean (aretoan).

## Domeka 10

**IRTEERA**
**09.00.-** Aixa kobazulora bisita, Akerbeltz taldearen laguntzaz. Gaztetxetik.

**TXORI KANTARIAK**
**09.00etatik 14.30etara.-** Eibarko Hiria Txori Kantarien XII. Txapelketa, JJJ Memoriala. Arraten (eguraldi txarra izanez gero, Iturburun). Antolatzailea: Eibarko Txori Lagunak.

**URKIKO JAIAK**
**11.00.-** Diana, dultzainero eta trikitilariek lagunduta. Urkiko kaleetan zehar.
**11.00.-** IV. Mendi-Lasterketa: Urki-Galdaramiño-Topinburu-Azkonabitza-Urki. Babesleak: Cepa taberna eta Eskarne jatetxea.
**12.00.-** Meza auzoko hildakoen alde. San Jose Obrero elizan.
**12.30.-** XIV. Paella Lehiaketa. Babesleak: Chalcha jatetxea eta Eibarko Dendarien Elkartea.
**14.00.-** Paella Lehiaketaren epai-mahaiaren erabakia.
**16.45.-** Umeendako antzerkia, Zanzinni-ren eskutik. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**18.00.-** Txokolate-jana. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**18.00.-** DJ Arno. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
**20.00.-** Jaien amaierako suziriak.

## Astelehena 11

**HITZALDIA**
**19.00.-** "Alternatiba sozioekonomikoa". Armeria Eskolan.

**HITZALDIA**
**19.30.-** "Aprende a escuchar a tu corazón. Prevención cardiovascular y hábitos de vida". Hizlariak: Ignacio Gallo zirujau kardiobaskularra eta Eduardo Alegria kardiologoa. Portalean.



## Martitzena 12

**GARAGARDO JAIA**
**19.00.-** Garagardo Jaiaren inaugurazioa. Ekainaren 17 arte izango da. Antolatzailea: Eibar Rugby Taldea. Untzagan.

## Eguaztena 13

**IKASTEN**
**11-00.-** Tertulia-kafea: "Medikuntza alternatiboa". Klub Deportiboan.

## Eguena 14

**KONTZERTUA**
**20.00.-** Isabel Laspiurren piano ikasleen kontzertua. Sarrera: 3 euro. Coliseo Antzokian.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## erakusketak

– *Ekainaren 15era arte*

***UNTZAGAKO JUBILATU ETXEKO***en joskintza eta puntu erakusketa. *Untzagako Jubilatu Etxean.*

– *Ekainaren 17ra arte*

***ZERAMIKA, MARRAZKI ETA PINTURA UDAL ESKOLETAKO*** ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*

### HILDAKOAK

- **Asun Basauri Ormaetxea.** 89 urte. 2012-VI-1.
- **Benigno Conde Conde.** 55 urte. 2012-VI-2.
- **Encarnación Antón Prieto.** 88 urte. 2012-VI-3.

### JAIOTAKOAK

- **Sabina Arizmendiarrieta Mendikute.** 2012-V-23.
- **Elena Horcajo Higuera.** 2012-V-28.
- **Urko Guinaldo Larrañaga.** 2012-V-28.
- **Aner Iraeta Manzanos.** 2012-V-28.

## farmaziak

***8, barixakua***
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

***9, zapatua***
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

***10, domeka***
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

***11, astelehena***
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

***12, martitzena***
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

***13, eguaztena***
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

***14, eguena***
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

***15, barixakua***
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)



## Debabarreneko IV. BTT ibilaldia martxan

**DATORREN UZTAILAREN 1-EAN JOKATUKO DA ESKUALDEKO** BTT martxaren laugarren edizioa eta parte hartu nahi dutenek aukera dute izena emateko (www.debabarrenaturismo.com). Bi ibilbide izango ditu probak, euretatik bat aukeratzeko: 25 kilometrokoa bata eta 45ekoa bestea, biak ere Karakate mendian.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 9 | 8 | | | | | 6 |
| | 4 | 8 | 1 | | 7 | 2 | | |
| | | | | | | | | |
| | 7 | | | 4 | | 1 | | 8 |
| | 5 | | | | | | 9 | |
| 3 | | 4 | | 8 | | | 2 | |
| | | | | | | | | |
| | | 7 | 5 | | 2 | 4 | 6 | |
| 6 | | | | | 3 | 9 | | |

## DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak .......................*112*
Pegora ............................*010*
Udaletxea .........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.....*943 20 15 25*
Mankomunitatea*943 70 07 99*
Debegesa.........*943 82 01 10*
KIUB ................*943 20 38 43*
Epaitegia ..........*943 03 34 00*
Iberdrola ..........*901 20 20 20*
Naturgas ...........*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..*943 22 22 22*
Mendaro osp.....*943 03 28 00*
Anbulategia......*943 03 25 00*
Torrekua ...........*943 03 26 50*
Errepideak........*902 11 20 88*
Ertzaintza .........*943 53 17 00*
Eusko Tren .......*902 54 32 10*
Pesa ................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ..*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen *650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Pisua salgai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m$^2$ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Pisua salgai Eibar erdi aldean (Ubitxa). 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Bizitzera sartzeko moduan. Oso merke. Tel. 685-732596.
– Pisua salgai Eibar erdi aldean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. 130 m$^2$. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
– Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. 150.000 euro. Tel. 672-622774.
– Atikoa salgai Eibarren, Ardantzan. 72 m$^2$. Logela bat (bi ateratzeko aukera), egongela, sukaldea eta komuna. 17 m$^2$ko terraza. Berria. Hegoaldera begira. Garajea eta trasteroa aukeran. 212.500 euro. Tel. 647-952677.

## 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m$^2$ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Pisua alokagai Deban, Guipuzcoano Plazan. 2 logela, egongela handia (sofa-ohearekin), 2 komun, terraza eta garajea. Igogailua. Guztiz berriztuta. Uztaila eta abuzturako -edo urte osorako-. Tel. 619-237449. Conchi.
– Pisua hartuko nuke alokairuan ahalik eta bizkorren Eibarren. Urgentea. Tel. 646-662911.
– Oporretarako apartamentua alokagai Ezkaray-n. Prest 4 lagunentzat. Igogailua, garajea eta igerilekua. Tel. 639-176239.
– Pisua alokagai Elgetan. Ia berria. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta 2 komun. Tel. 606-083992.
– Apartamentu txikia alokagai Donostian uztailerako. Hondartzaren ondoan. 3-4 lagunentzat. 1.400 euro lau aste. Tel. 675-712886.
– Hiru logelako pisua behar dut Eibarren. Tel. 652-532589.

# 2. Motorra

## 2.1. Salgai

– Karro-denda salgai. Oso egoera onean. Sekulako aukera. 1.200 euro. Tel. 617-808785.

# 3. Lokalak

## 3.2. Errentan

– Garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


– Behaldea alokagai Ubitxan. 100 m$^2$. Argi-instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.

# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 664-111706.
– Neska eskaintzen da arratsaldez eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 639-611454.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-431590.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Tel. 634-007292.
– Mutila eskaintzen da kamarero edo gidari-banatzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 626-292587.
– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-861846.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 634-887814.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-922727.
– Neska eskaintzen da udan kamarera jarduteko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-949471.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, .... Edozein ordutegi eta eguneta. Tel. 689-847947.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 686-077316.
– 34 urteko neska euskaldun arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioa eta esperientzia. Tel. 650-455685.
– Emakumea eskaintzen da goizez edozein lanetarako. Tel. 943-127018 eta 635-555040.
– Hezkuntza Esparruan bizi den neska arduratsua eta dinamikoa eskaintzen da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 658-757251.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 654-349366.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 695-303534.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 648-873547.
– Estetizista euskalduna eskaintzen da erlaxatzeko masajeak eta makilajeak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-718035.
– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernetan, garbiketan eta mendian lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 682-290521.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 658-757251.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-849391.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-052084.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 692-332871.
– Mutila eskaintzen da taberna eta jangeletan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein pintore lanetarako. Tel. 622-573180.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 943-821537.
– Emakumea eskaintzen da udan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia. Tel. 680-463892.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-730662.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko. Tel. 636-517025.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 647-175093.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-249735.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-181350.
– Arotza eskaintzen da. Esperientzia. Tel. 654-453268.

## 4.2. Langile bila

– Kamarera/o euskalduna behar da. Tel. 943-201537.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Biolin klaseak ematen dira. Adin guztietako ikasleak. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. Tel. 679-740061.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Bigarren eskuko Bugaboo Cameleón (patinete eta guzti) eta mendiko motxila (umea eramateko) salgai. Tel. 686-703907.
– Setter txakurra salgai. Oilagorretarako prestatua. Tel. 649-258913.
– Ehizarako eskopeta “superpuesta” salgai. Tel. 649-258913.
– Ohetik altxatzeko garabia salgai. Invacare markakoa. Oso berria. Ikusteko aukera. 650 euro. Tel. 943-203868.
– Gurpildun silla estua salgai. Berria. Tel. 661-164231.
– Taberna itxi dugula-eta, kafetegirako makinaria eta altzariak salgai. Tel. 676-753898.

## 6.2. Eman

– Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

## 6.3. Galdu/Aurkitu

– Zapatu gauean Euskal Jaiko karpan jertse beltz luzea aurkitu nuen eta jertse beltz motza galdu. Tel. 656-704387.

## 6.4. Bestelakoak

– Ortua edo terrenoa erosiko nuke Ermutik gertu. Tel. 627-833274.



DEBA

aisia
HOTELES



LEKEITIO

**Markiegi, 6** *(Tel. 943-608052)*

**Sta. Elena, z/g** *(Tel. 94-6842655)*

## 2012ko urritik 2013ko otsailera Lekeitioko edo Debako Aisia hoteletan EZKONTZEN BAZARA, honakoa jasoko duzu opari:

2 ordu **DJ**-arekin / Ezkontza **Suitea** + **"Jarri Galant"** pack termala / 55 plazako **autobusa** gonbidatuentzat / **Afari osteko mokaduak** / **Cava** brindiserako / Mahaietako **dekorazioa** lorekin **Menu pertsonalizatuak** / Prezio bereziak **argazki** erreportajean + Ezkontza **gonbidapenak** doan

*Aipatutako eskaintza 50 gonbidatutik gorako ezkontzetarako da. Gonbidatu gutxiagorekin, galdetu hotelean baldintza eta promozioei buruz.*



**deba@aisiahoteles.com**



**lekeitio@aisiahoteles.com**



# UNITED COLORS OF BENETTON.



# *hau non dago?*



*www.belaustegi.com*